# Pribatuen Iragarkiak

**SPRI SA**

IRAGARKIA, «KZ Urruneko Backup-a» Programaren araudia aldatzeari buruzkoa. Programa honen bitartez, enpresa txikietako ordenagailuetan gordetako datuen urruneko babes-kopiak Internet bidez egiteko laguntza neurriak ezartzen dira. 2368

**BASQUETOUR-TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA, S.A.**

IRAGARKIA, premiazko izapidetzea eta prozedura irekiko lehiaketaren bidez, Fitur azokan erabilitako Euskadiren standa beste azoka batzuetan erabili ahal izateko egokitzea, eta joan-etorriak, muntaketa eta desmuntaketa eta gordetze lanak kontratatzeko dena. 2369

IRAGARKIA, premiazko izapidetzea eta prozedura irekiko lehiaketaren bidez, Euskadi BTT Zentroak kudeatuko dituen enpresa kontratatzeko dena. 2369

# Anuncios Particulares

**SPRI, S.A.**

ANUNCIO de la modificación de la normativa del Programa «KZ Backup Remoto» por el que se establecen medidas de apoyo para impulsar la realización de copias de seguridad remotas y a través de Internet de los datos almacenados en los ordenadores de las pequeñas empresas. 2368

**BASQUETOUR-AGENCIA VASCA DE TURISMO, S.A.**

ANUNCIO para la contratación, por tramitación urgente y por el procedimiento abierto, de concurso relativo a la adaptación del stand de Euskadi en Fitur, para su utilización en otras ferias, así como su traslado, montaje, desmontaje y almacenamiento. 2369

ANUNCIO para la contratación, por tramitación urgente y por el procedimiento abierto, de concurso relativo a la adjudicación a una empresa gestora de los Centros BTT Euskadi. 2369

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 732

10/2007 DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta zuzendaria izendatzeko prozedura arautu duen Dekretua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta zuzendaria izendatzeko prozedura arautu du urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuak.

Dekretu horrek ezarri duena Hezkuntza Eskubidea arautzeko 8/1985 Lege Organikoaren IV. tituluak xedatu duenari egokitzeko, beharrezkoa da dekretu hori zati batean aldatzea.

Beste alde batetik, hezkuntza-sektore guztiek ikastetxeetako eskola-kontseiluko kideak hautatzeko prozesuetan parte hartzea errazte aldera, komeni da botoa ordezkatzeko edo botoa postaz emateko bideak ezartze-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 732

DECRETO 10/2007, de 30 de enero, de modificación del Decreto por el que se regula el procedimiento de elección y constitución del Consejo Escolar y la designación del Director o Directora de los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 7/1997, de 22 de enero, regula el procedimiento de elección y constitución del Consejo Escolar y la designación del Director o Directora de los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Con objeto de adecuar lo establecido en este Decreto a lo dispuesto en el Título IV de de la Ley Orgánica 8/1985, reguladora del Derecho a la Educación, resulta necesario proceder a la modificación parcial del mismo.

Por otra parte, con objeto de favorecer la participación de todos los sectores educativos en los procesos de elección de los miembros de los Consejos Escolares de los centros, resulta conveniente prever la posibilidad de

ko aukera aurreikustea, beharrezkotzat jotako hauteskunde-prozesu eta hezkuntza-sektoreetarako.

Horiek horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 30eko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.–*** Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta zuzendaria izendatzeko prozedura arautu duen urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuaren 3. artikulua:

«3. artikulua.– Honako kide hauek izango ditu ikastetxe pribatuen Eskola Kontseiluak:

– Zuzendaria.
– Ikastetxearen titularraren hiru ordezkari.
– Ikastetxea zer udalerritan dagoen, hango udaleko zinegotzi edo ordezkari bat.

– Ikastetxeko irakasleen lau ordezkari.

– Ikastetxeko ikasleen gurasoen edo tutoreen lau ordezkari.
– Ikastetxeko ikasleen bi ordezkari, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen kurtsotik aurrera.
– Ikastetxeko administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

Gainera, Hezkuntza Bereziko zentro espezifikoetan eta gela espezializatuak dituztenetan, hezkuntza-arreta osagarria ematen duten langileen ordezkari bat ere izango da Eskola Kontseiluko partaide.»

***Bigarren artikulua.–*** Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta zuzendaria izendatzeko prozedura arautu duen urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuaren 5. artikulua:

«5. artikulua.– 1.– Lanbide Heziketa ematen duten itunpeko ikastetxeek enpresa-munduko ordezkari bat ekartzeko aukera izango dute euren Eskola Kontseiluetara.

2.– Horretarako, ikastetxeak Lanbide Heziketako zer irakaskuntza ematen duen, horrekin zerikusia duen ordezkaritza handieneko enpresa-

establecer mecanismos de delegación de voto o de voto por correo en aquellos procesos electorales y para aquellos sectores educativos en los que se considere necesario.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día 30 de enero de 2007,

DISPONGO:

***Artículo primero.–*** El artículo 3 del Decreto 7/1997, de 22 de enero, por el que se regula el procedimiento de elección y constitución del Consejo Escolar y la designación del Director o Directora de los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 3.– El Consejo Escolar de los centros docentes privados concertados tendrá la siguiente composición:

– El Director o Directora.
– Tres representantes del titular del centro.
– Un concejal o representante del Ayuntamiento en cuyo término municipal se halle radicado el centro.
– Cuatro representantes de los profesores y profesoras del centro.
– Cuatro representantes de los padres y madres o tutores de los alumnos del centro.
– Dos representantes de los alumnos y alumnas del centro, a partir del primer curso de la Educación Secundaria Obligatoria.
– Un representante del personal de administración y servicios del centro.

Además, en los centros específicos de Educación Especial y en aquellos que tengan aulas especializadas, formará parte también del Consejo Escolar un representante del personal de atención educativa complementaria.»

***Artículo segundo.–*** El artículo 5 del Decreto 7/1997, de 22 de enero, por el que se regula el procedimiento de elección y constitución del Consejo Escolar y la designación del Director o Directora de los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 5.– 1.– Los centros concertados que impartan formación profesional podrán incorporar a su Consejo Escolar un representante del mundo de la empresa.

2.– A tal efecto, la titularidad del centro se dirigirá a la organización empresarial más representativa relacionada con las enseñanzas de For-

erakundera joko du ikastetxeko titularrak, erakunde horrek ordezkaria izendatu dezan.

3.– Izendatutako ordezkariaren agintaldia, gehienez ere, lau urtekoa izango da. Izendatu zuen enpresa-erakundearen erabakiz utziko du kargua pertsona horrek.»

***Hirugarren artikulua.–*** Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta zuzendaria izendatzeko prozedura arautu duen urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuaren 14.1. artikulua:

«14. artikulua.– 1.-Ordezkariak hautatzeko eta ordezkari izateko eskubidea hauek daukate: gurasoek eta legezko tutoreek, irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleek, eta Hezkuntza Bereziko zentro espezifikoetan eta gela espezializatuak dituztenetan, hezkuntza-arreta osagarria ematen duten langileek, beti ere hautesle-erroldan baldin badaude.»

***Laugarren artikulua.–*** Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta zuzendaria izendatzeko prozedura arautu duen urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuaren 17. artikulua:

«17. artikulua.– 1.– Zuzeneko eta isilpeko sufragioz egingo dira botazioak. Hezkuntza-sektore guztiek ikastetxeetako eskola-kontseiluko kideak hautatzeko prozesuetan parte hartzea errazte aldera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bide egokiak ezarri ahal izango ditu botoa ordezkatzeko edo botoa postaz emateko.

2.– Boto-emaile bakoitzak dagokion hautestontzian utziko du boto-txartel bana, eta bertan idatzita egongo dira botoa ematen dien pertsonen izena edo izenak. Gurasoek eta irakasleek gehienez bina izen jarriko dituzte euren boto-txarteletan; ikasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta hezkuntza-arreta osagarriko langileek, ostera, izen bakarra.

3.– Baliogabeak izango dira aurreko paragrafoan ezarritakoak baino hautagai-izen gehiago dauzkaten botoak eta hautagai-izen errepikatuak dauzkaten botoak.»

***Bosgarren artikulua.–*** Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta

mación Profesional que imparta, para que designe su representante.

3.– La duración del mandato de la persona designada será de cuatro años, como máximo. Esta persona cesará por decisión de la organización empresarial que la designó.»

***Artículo tercero.–*** El artículo 14.1 del Decreto 7/1997, de 22 de enero, por el que se regula el procedimiento de elección y constitución del Consejo Escolar y la designación del Director o Directora de los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 14.– 1.– El derecho a elegir y ser elegido representante lo ostentan los alumnos y alumnas de Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional, los padres y madres o tutores legales, los profesores y profesoras, el personal de administración y servicios y, en los centros específicos de Educación Especial y en aquellos que tengan aulas especializadas, los miembros del personal de atención educativa complementaria, incluidos en el censo electoral.»

***Artículo cuarto.–*** El artículo 17 del Decreto 7/1997, de 22 de enero, por el que se regula el procedimiento de elección y constitución del Consejo Escolar y la designación del Director o Directora de los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 17.– 1.– Las votaciones se efectuarán mediante sufragio directo y secreto. Con objeto de favorecer la participación de todos los sectores educativos en los procesos de elección de los miembros de los Consejos Escolares de los centros, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá establecer los oportunos mecanismos de delegación de voto y de voto por correo.

2.– Cada votante depositará en la urna correspondiente una papeleta en la que constarán el nombre o nombres de las personas a las que otorgue su voto. Los padres y madres y los profesores o profesoras harán constar en su papeleta un máximo de dos nombres, los alumnos y alumnas, el personal de administración y servicios y el personal de atención educativa complementaria un solo nombre.

3.– Serán nulos los votos que contengan más nombres de candidatos que los establecidos en el punto anterior y aquellos que contengan nombres de candidatos repetidos.»

***Artículo quinto.–*** El artículo 23 del Decreto 7/1997, de 22 de enero, por el que se regula el procedimiento de elección y constitución del Consejo Esco-

zuzendaria izendatzeko prozedura arautu duen urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuaren 23. artikulua:

«23. artikulua.– 1.– Titularrak eta Eskola Kontseiluak adostu ondoren izendatuko da itunpeko ikastetxeetako zuzendaria. Kideen erabateko gehiengoz hartuko da ikastetxeko Eskola Kontseiluaren akordioa.

2.– Adostasunik ez bada, ikastetxeko Eskola Kontseiluak izendatuko du zuzendaria, titularrak proposaturiko irakasle-hiruko batetik. Kideen erabateko gehiengoz hartuko da ikastetxeko Eskola Kontseiluaren akordioa.

3.– Zuzendariaren agintaldiak hiru urte iraungo du.

4.– Ikastetxeko titularraren eta Eskola Kontseiluaren arteko akordioa beharko da zuzendaria kargutik kentzeko.

5.– Zuzendariaren izendapena edo kargu uztea noiz gertatu den, ikastetxeetako titularrek hamar eguneko epea izango dute, egun horretatik aurrera, Hezkuntzako lurralde-ordezkariari horren berri emateko.»

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Ikastetxe itunduetan Dekretu hau indarrean sartu aurretik izendatutako zuzendarien agintaldiaren iraupena, izendatzean indarrean zegoen arautegiak ezartzen zuena izango da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko urtarrilaren 30ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

lar y la designación del Director o Directora de los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 23.– 1.– El Director o Directora de los centros concertados será designado previo acuerdo entre el titular y el Consejo Escolar. El acuerdo del Consejo Escolar del centro será adoptado por mayoría absoluta de sus miembros.

2.– En caso de desacuerdo, el Director o Directora será designado por el Consejo Escolar del centro de entre una terna de profesores o profesoras propuesta por el titular. El acuerdo del Consejo Escolar del centro será adoptado por mayoría absoluta de sus miembros.

3.– El mandato del Director o Directora tendrá una duración de tres años.

4.– El cese del Director o Directora requerirá el acuerdo entre la titularidad y el Consejo Escolar del centro.

5.– Los titulares de los centros comunicarán al Delegado o Delegada Territorial de Educación correspondiente la designación o el cese del Director o Directora en el plazo máximo de diez días a partir de la fecha en que se produzca tal circunstancia.»

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La duración del mandato de los Directores y Directoras de los centros concertados nombrados con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto será la establecida en la normativa vigente en el momento de su nombramiento.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de enero de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.